AYUNTAMIENTO DE
ARRAZUA-UBARRUNDIA
*(ALAVA)*

ARRAZUA-UBARRUNDIA'ko UDALA
*(ARABA)*

C/ Uribea,12 C.P. : 01520 (Durana) C.I.F: P-0100900-J Teléfono : 945-299516 / Fax: 945-299602

# BANDOA

# ESKOLA-GARRAIORAKO LAGUNTZAK 2013-2014

Arratzua-Ubarrundiako Udalak, 2014ko martxoaren 17an egindako ohiko saioan, ondoren zehaztutako jarduerak helburu dituen diru-laguntza deialdia eta deialdi horren oinarriak onartu ditu:

- Eskola-garraioa. Eskaerak aurkezteko epearen amaiera: iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik 30 egun natural.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da, eta honakoa adierazten da: dokumentazio guztia eskura dagoela udal bulegoetan, Durana herriko Uribea kaleko 12 zk.an, 8:00etatik 14:00etarako ordutegian, eta biata www.arratzua-ubarrundia.com webgunean ere.

Duranan, 2014ko martxoaren 20an. Alkatea. Rufino Sáez de Ibarra Ruiz de Arbulo.

OINARRIAK.

Apirilaren 2ko 7/85 legearen 25. artikuluak, Tokiko Erregimenaren oinarriak arautzen dituenak, aukera ematen du Udalerriak, bere interesak

# BANDO

# AYUDAS A TRANSPORTE ESCOLAR 2013-2014

El Ayuntamiento de Arrazua-Ubarrundia, en Sesión Ordinaria celebrada el día 17 de marzo de 2014, ha acordado aprobar la Convocatoria de Ayudas y las Bases por las que se concederán las mismas, destinadas a las siguientes actividades:

- Transporte Escolar. Fin de plazo para presentar solicitudes; 30 días naturales tras aparición de este anuncio en BOTHA.

Lo que se hace público para general conocimiento, significando que las toda la documentación se halla de manifiesto tanto en las dependencias Municipales sitas en la C/ Uribea 12 de la localidad de Durana, en horario de 8:00 a 14:00 horas, como en la página web: www.arratzua-ubarrundia.com

Durana a 20 de marzo de 2014. El alcalde. Rufino Sáez de Ibarra Ruiz de Arbulo

BASES.

El art. 25 de la Ley 7/85 de 2 de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local establece la posibilidad de que el Municipio para la gestión de sus intereses

| | |
|---|---|
| kudeatzeko, eta bere eskumenen esparruan, herritarren beharrak asetzera zuzendutako edozein motatako jarduerak sustatzeko eta behar beste zerbitzu publiko emateko. | y en el ámbito de sus competencias puede promover toda clase de actividades y prestar cuantos servicios públicos contribuyan a satisfacer las necesidades y aspiraciones de la Comunidad Vecinal. |
| Udal honen iritziz, beharrezkoa da gure herritarrek derrigorrezko ez diren ikasketak goi-mailako heziketa zentroak dauden udalerrietan bizi diren ikasleen baldintza berberetan egiteko aukera izatea. | Este Ayuntamiento considera necesario que nuestros vecinos puedan realizar estudios no obligatorios en las mismas condiciones que los estudiantes que residen en municipios donde existen centros educativos superiores. |
| Kontuan izanik diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 9. artikuluan ezarritakoa, hain zuzen ere, diru-laguntzaren oinarri arautzaileak onartu behar direla diru-laguntzak esleitu aurretik. | Teniendo en cuenta lo establecido en la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones, en su art. 9 que establece que con carácter previo al otorgamiento de subvenciones ha de aprobarse las bases reguladoras de la subvención. |
| Ikusirik, era berean, 2005eko azaroaren 17an Udal honek onartu zuen Diru-laguntza eta Laguntzen Ordenantza Arautzailea, 2006ko otsailaren 13ko 18 zenbakidun Arabako Lurralde Historikoko ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratu zena. | Visto asimismo la Ordenanza Reguladora de Subvenciones y Ayudas aprobada por este Ayuntamiento con fecha 17 de noviembre de 2005 y publicada íntegramente en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava nº 18 de fecha 13 de febrero de 2006. |
| Eskola-garraiorako diru-laguntzen deialdi publikoa onartzen da, derrigorrezko hezkuntza baino goragoko ikasketak egiten ari diren ikasleei zuzendua. Ondorengo oinarrien arabera onartzen da: | Se aprueba la Convocatoria pública de Ayuda al Transporte Escolar dirigida a alumnos que cursen sus estudios en cursos superiores a la Enseñanza Obligatoria con arreglo a las siguientes Bases: |
| LEHENENGOA.- Deialdiaren helburua | PRIMERA.- Objeto de la Convocatoria |
| Eskola-garraiorako diru-laguntzen deialdi publikoa egiten da, 2013-2014 ikasturterako, derrigorrezko hezkuntza baino goragoko ikasketak ikastetxe publiko edo pribatuetan egiten dituzten ikasleei zuzenduta. | Se realiza convocatoria pública de ayudas para el transporte escolar, para el curso 2013-2014 dirigida a alumnos que cursen sus estudios oficiales en centros docentes públicos o privados en cursos superiores a la enseñanza obligatoria. |
| BIGARRENA.- Aurrekontu- | SEGUNDA.- Dotación |

C/ Uribea,12 C.P. : 01520 (Durana) C.I.F: P-0100900-J Teléfono : 945-299516 / Fax: 945-299602

| | |
|---|---|
| hornidura. | presupuestaria. |
| Indarrean dagoen ekitaldiko 321.480.001 aurrekontu-partidan dago aurrekontu-hornidura. | Existe dotación presupuestaria en la partida 321.480.001 del presupuesto del ejercicio. |
| HIRUGARRENA.- Onuradunak | TERCERA.- Beneficiarios |
| Eskola-garraiorako laguntzen onuradun izan daitezke Arratzua-Ubarrundian erroldatutako ikasle guztiak, baldin eta, deialdia argitaratzen den datan, gutxienez urtebete badaramate erroldatuta, eta 27 urtetik behera badituzte. Era berean, derrigorrezko hezkuntza baino goragoko ikasketaren bat egiten ari beharko dira, edozein ikastetxe publiko nahiz pribatutan. | Podrán ser beneficiarios de las ayudas para transporte escolar todos los alumnos empadronados en el Municipio de Arratzua-Ubarrundia que cuenten a fecha de la convocatoria con una antigüedad mínima en el empadronamiento de un año y no sobrepasen los 27 años de edad, que cursen sus estudios en cursos superiores a la Enseñanza Obligatoria en cualquier centro docente oficial tanto público como privado. |
| Diruz lagundutako garraiotzat joko da ondorengo ikasketak egiteko erabiltzen dena.<br>- Batxilergoa.<br>- Erdi mailako LH<br>- Goi mailako heziketaren barruan:<br>• Unibertsitate-ikasketak<br>• Goi mailako arte-ikasketak<br>• Arte plastikoko ikasketa profesionalak eta goi mailako diseinua.<br>• Goi mailako LH<br>• Goi mailako kirol ikasketak | Se entenderán subvencionado el transporte que se realice para realizar estudios de:<br>- Bachillerato.<br>- FP grado medio<br>- Educación superior que engloba:<br>• Enseñanza universitaria<br>• Enseñanzas artísticas superiores<br>• Enseñanzas profesionales de artes plásticas y diseño de grado superior.<br>• FP superior.<br>• Enseñanzas deportivas grado superior. |
| Kanpoan geratzen dira Hizkuntza Eskolako hizkuntza-ikasketak. Hala ere, filologia-ikasketak diruz lagunduta daude. | Quedan excluidos los estudios de idiomas en Escuelas de Idiomas, subvencionándose solo el transporte para estudios de filologías. |
| LAUGARRENA.- Eskaerak eta dokumentazioa.<br>Eskaerak Arratzua-Ubarrundiako Udalaren izenean egin behar dira, www.arratzua-ubarrundia.com webgunean edo udal bulegoetan dagoen ereduaren | CUARTA.- Solicitudes y documentación<br><br>Las solicitudes deberán ir dirigidas al Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia en el modelo que se podrá obtener en la página web www.arratzua-ubarrundia.com o en las oficinas municipales y deberán ir |

| | |
|---|---|
| arabera. Ondorengo dokumentazioarekin batera aurkeztu behar dira:<br><br>- Ikaslearen NANa, edo, adin txikikoa bada, bere guraso edo tutorearena.<br>- Ikasketak egiten ari den ikastetxeko matrikularen fotokopia.<br>- Eskolen ordutegia, Arabatik kanpoko ikasketen kasuan salbu.<br>- Laguntza jasoz gero, diru-sarrera egin behar den kontu zenbakia (IBAN).<br>- Beste erakunde edo organismoren bati, kontzeptu bera dela eta, laguntzaren bat eskatu dion eta laguntza hori jaso duen adierazten duen aitorpena. | acompañadas de la siguiente documentación:<br><br>- D.N.I del alumno o su progenitor o tutor si es menor de edad.<br>- Fotocopia de la matrícula del centro escolar donde curse sus estudios.<br>- Horario de las clases, salvo estudios fuera de Álava.<br>- nº de cuenta (IBAN) en el que ha de realizarse el ingreso en caso de obtenerse la ayuda.<br>- Declaración sobre si se ha solicitado y/o obtenido alguna otra ayuda por este mismo concepto de otro organismo o institución. |
| BOSGARRENA.- Eskaerak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko epea.<br><br>Eskaerak oinarriak ALHAOn argitaratu eta hurrengo 30 eguneko epean aurkeztu beharko dira.<br><br>Aurkeztutako dokumentazioan ez badaude eskatutako datu guztiak, eskatzaileari datu horiek aurkezteko eskatuko zaio, 10 eguneko epean. Epea igaro ondoren eskatzaileak eskatutakoa aurkezten ez badu, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da, ebazpena egin aurretik. | QUINTA.- Plazo de presentación y subsanación de los defectos.<br><br>Las solicitudes deberán presentarse en el plazo de 30 días naturales siguientes al de la inserción de las bases en el BOTHA.<br><br>Si la documentación presentada no reuniera todos los datos exigidos se requerirá al solicitante para su cumplimentación en el plazo de 10 días, con la indicación de que transcurrido el mismo sin presentarlos se le tendrá por desistido de su solicitud previa resolución. |
| SEIGARRENA.- Balorazio-batzordea.<br><br>Eskaerak kultura, gizarte-ongizate, osasun publiko eta kirolen batzorde informatiboan aztertuko dira. | SEXTA.- Comisión de valoración.<br><br>Las solicitudes serán valoradas por la Comisión Informativa de Cultura, Bienestar Social, Salud Pública y Deportes. |
| ZAZPIGARRENA.- Laguntzen zenbatekoa zehazteko irizpideak.<br><br>Laguntzen zenbatekoak inoiz ezin izango du gainditu diruz lagundutako kontzeptuaren kostua. Ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan, zenbatekoa zehazterakoan: | SEPTIMA.- Criterios para determinar la cuantía de las ayudas.<br><br>Para la determinación del importe de las ayudas, que en ningún caso podrán superar el coste del concepto por el que se concede, se atenderá a los siguientes criterios: |

C/ Uribea,12 C.P. : 01520 (Durana) C.I.F: P-0100900-J Teléfono : 945-299516 / Fax: 945-299602

| | |
|---|---|
| - Ikastetxerainoko garraioa, goizeko edo arratsaldeko ordutegian<br>90 €<br>- Ikastetxerainoko garraioa, goizeko edo eta arratsaldeko ordutegian<br>170€<br>- Garraioa Arabatik kanpora 600€ | - Transporte hasta el centro escolar en horario de mañana o tarde<br>90 €<br>- Transporte hasta el centro escolar en horario de mañana y de tarde<br>170 €<br>- Transporte fuera de Álava 600 € |
| ZORTZIGARRENA.- Ebazpena. | OCTAVA.- Resolución. |
| Deialdia Udalak ebatziko du, osoko bilkuran, aurretiaz balorazioa egiten duen batzorde informatiboak egindako proposamen arrazoitua kontuan hartuta, proposamena egiten den dataren ondorengo osoko bilkuran. Ebazpena Iragarki-taulan eta Udalaren webgunean (www.arratzua-ubarrundia.com) argitaratuko da. | La convocatoria será resuelta por el Ayuntamiento Pleno, a propuesta razonada de la Comisión Informativa que realiza la valoración, en la siguiente Sesión Ordinaria que se celebre tras la emisión de la propuesta. La resolución será publicada en el Tablón de Anuncios y en la página web del Ayuntamiento www.arratzua-ubarrundia.com. |
| Deialdia ebazteko eta Ebazpena argitaratzeko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen denetik kontatzen hasita. Epea igarotzen bada eta ez badago berariazko ebazpenik, eskaerak atzera bota direla ulertuko da. | El plazo máximo para resolver la convocatoria y publicar la Resolución será de seis meses a contar desde la publicación de la convocatoria. Transcurrido el dicho plazo sin que recaiga resolución expresa se podrán entender desestimadas las solicitudes. |
| Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du. Ebazpenaren aurka administrazioaren auzietarako errekurtsoa jarri daiteke, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako epaitegian. | Contra la resolución, que pone fin a la vía administrativa cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo de Vitoria-Gasteiz. |
| BEDERATZIGARRENA.- Laguntzen ordainketa. | NOVENA.- Pago de las ayudas. |
| Laguntzak banku-transferetzia bidez ordainduko dira, eskaeran adierazten den kontu zenbakian. | Las ayudas serán abonadas mediante transferencia bancaria al número de cuenta que se halla designado en la solicitud. |
| HAMARGARRENA.- Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin. | DECIMA.- Compatibilidad con otras ayudas. |

C/ Uribea,12 C.P. : 01520 (Durana) C.I.F: P-0100900-J Teléfono : 945-299516 / Fax: 945-299602

| | |
|---|---|
| Deialdi honetan emandako laguntzak bateragarriak dira helburu berbererako jasotako beste laguntzekin. Hala ere, eskatzaileari diru-laguntza honetan ematen zaion zenbatekoa helburu bererako jaso duen beste laguntzaren kopuruaren arabera jaitsiko da. | Las ayudas concedidas en virtud de la presente convocatoria son compatibles con otras ayudas recibidas para el mismo fin, no obstante la cuantía que por esta subvención correspondería al solicitante, será reducida en la misma cantidad que la ayuda que hubiera recibido para el mismo fin. |
| HAMAIKAGARRENA.- Ebazpena aldatzea. | UNDÉCIMA.- Modificación de la Resolución. |
| Laguntza emateko kontuan izandako baldintzetan egindako edozein aldaketak laguntzaren ebazpenean aldaketak ekarri ahal izango ditu. | Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la ayuda, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión. |
| HAMABIGARRENA. Itzulketa. | DUODÉCIMA.- Reintegro. |
| Laguntzak bertan behera utziko dira eta jasotako kopurua itzuli beharko da ikasleak ikasketak uzten baditu, eskaera egin den ikasturtearen barruan.<br>Itzuli beharreko kopuruak eskubide publikoko diru-sarrera izaera izango dute, eta, adierazitako epean itzulketa egiten ez bada, premiamendu-bidea erabili ahal izango da. | Procederá la cancelación de las ayudas y el reintegro de las cantidades percibidas cuando el alumno abandone sus estudios, durante el curso que se solicita.<br>Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de derecho público, resultando de aplicación, si tal reintegro no tiene lugar en los plazos que se señalen, la vía de apremio. |
| HAMAHIRUGARRENA.- Ikuskapena, kontrola eta jarraipena. | DECIMOTERCERA.- Inspección, Control y Seguimiento. |
| Udalak eskubidea du diruz lagundutako jardueraren ikuskapena, kontrola eta jarraipena egiteko, eta baita beharrezko jotzen duen edozein ziurtagiri eskatzeko ere. | El Ayuntamiento se reserva el derecho de inspección, control y seguimiento de la actividad subvencionada, así como de pedir cuantos justificantes se consideren necesarios. |
| HAMALAUGARRENA.- | DECIMOCUARTA.- |
| Oinarri hauetan aurreikusten ez diren kasuetan Arratzua-Ubarrundiako Udalak onartutako Diru-laguntzen Ordenantza Arautzailean ezarritakoa eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotakoa ezarriko da. | En lo no previsto en las presentes Bases se estará a lo dispuesto en la Ordenanza Reguladora de Subvenciones y Ayudas, aprobada por el Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia, y en la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones. |

| | |
|---|---|
| Oinarri hauen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, Udaleko osoko bilkuraren aurrean, hilabeteko epean, edo, zuzenean,administrazioaren auzietarako errekurtsoa, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako epaitegian. | Contra las presentes Bases cabe interponer potestativamente recurso de reposición en el plazo de un mes ante el Ayuntamiento en Pleno o bien directamente recurso Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz. |

AYUNTAMIENTO DE
ARRAZUA-UBARRUNDIA
*(ALAVA)*

ARRAZUA-UBARRUNDIA'ko UDALA
*(ARABA)*

C/ Uribea,12 C.P. : 01520 (Durana) C.I.F: P-0100900-J Teléfono : 945-299516 / Fax: 945-299602

# BANDOA

# ESKOLA-GARRAIORAKO LAGUNTZAK 2013-2014

Arratzua-Ubarrundiako Udalak, 2014ko martxoaren 17an egindako ohiko saioan, ondoren zehaztutako jarduerak helburu dituen diru-laguntza deialdia eta deialdi horren oinarriak onartu ditu:

- Eskola-garraioa. Eskaerak aurkezteko epearen amaiera: iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik 30 egun natural.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da, eta honakoa adierazten da: dokumentazio guztia eskura dagoela udal bulegoetan, Durana herriko Uribea kaleko 12 zk.an, 8:00etatik 14:00etarako ordutegian, eta biata www.arratzua-ubarrundia.com webgunean ere.

Duranan, 2014ko martxoaren 20an. Alkatea. Rufino Sáez de Ibarra Ruiz de Arbulo.

OINARRIAK.

Apirilaren 2ko 7/85 legearen 25. artikuluak, Tokiko Erregimenaren oinarriak arautzen dituenak, aukera ematen du Udalerriak, bere interesak

# BANDO

# AYUDAS A TRANSPORTE ESCOLAR 2013-2014

El Ayuntamiento de Arrazua-Ubarrundia, en Sesión Ordinaria celebrada el día 17 de marzo de 2014, ha acordado aprobar la Convocatoria de Ayudas y las Bases por las que se concederán las mismas, destinadas a las siguientes actividades:

- Transporte Escolar. Fin de plazo para presentar solicitudes; 30 días naturales tras aparición de este anuncio en BOTHA.

Lo que se hace público para general conocimiento, significando que las toda la documentación se halla de manifiesto tanto en las dependencias Municipales sitas en la C/ Uribea 12 de la localidad de Durana, en horario de 8:00 a 14:00 horas, como en la página web: www.arratzua-ubarrundia.com

Durana a 20 de marzo de 2014. El alcalde. Rufino Sáez de Ibarra Ruiz de Arbulo

BASES.

El art. 25 de la Ley 7/85 de 2 de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local establece la posibilidad de que el Municipio para la gestión de sus intereses

| | |
|---|---|
| kudeatzeko, eta bere eskumenen esparruan, herritarren beharrak asetzera zuzendutako edozein motatako jarduerak sustatzeko eta behar beste zerbitzu publiko emateko. | y en el ámbito de sus competencias puede promover toda clase de actividades y prestar cuantos servicios públicos contribuyan a satisfacer las necesidades y aspiraciones de la Comunidad Vecinal. |
| Udal honen iritziz, beharrezkoa da gure herritarrek derrigorrezko ez diren ikasketak goi-mailako heziketa zentroak dauden udalerrietan bizi diren ikasleen baldintza berberetan egiteko aukera izatea. | Este Ayuntamiento considera necesario que nuestros vecinos puedan realizar estudios no obligatorios en las mismas condiciones que los estudiantes que residen en municipios donde existen centros educativos superiores. |
| Kontuan izanik diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 9. artikuluan ezarritakoa, hain zuzen ere, diru-laguntzaren oinarri arautzaileak onartu behar direla diru-laguntzak esleitu aurretik. | Teniendo en cuenta lo establecido en la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones, en su art. 9 que establece que con carácter previo al otorgamiento de subvenciones ha de aprobarse las bases reguladoras de la subvención. |
| Ikusirik, era berean, 2005eko azaroaren 17an Udal honek onartu zuen Diru-laguntza eta Laguntzen Ordenantza Arautzailea, 2006ko otsailaren 13ko 18 zenbakidun Arabako Lurralde Historikoko ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratu zena. | Visto asimismo la Ordenanza Reguladora de Subvenciones y Ayudas aprobada por este Ayuntamiento con fecha 17 de noviembre de 2005 y publicada íntegramente en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava nº 18 de fecha 13 de febrero de 2006. |
| Eskola-garraiorako diru-laguntzen deialdi publikoa onartzen da, derrigorrezko hezkuntza baino goragoko ikasketak egiten ari diren ikasleei zuzendua. Ondorengo oinarrien arabera onartzen da: | Se aprueba la Convocatoria pública de Ayuda al Transporte Escolar dirigida a alumnos que cursen sus estudios en cursos superiores a la Enseñanza Obligatoria con arreglo a las siguientes Bases: |
| LEHENENGOA.- Deialdiaren helburua | PRIMERA.- Objeto de la Convocatoria |
| Eskola-garraiorako diru-laguntzen deialdi publikoa egiten da, 2013-2014 ikasturterako, derrigorrezko hezkuntza baino goragoko ikasketak ikastetxe publiko edo pribatuetan egiten dituzten ikasleei zuzenduta. | Se realiza convocatoria pública de ayudas para el transporte escolar, para el curso 2013-2014 dirigida a alumnos que cursen sus estudios oficiales en centros docentes públicos o privados en cursos superiores a la enseñanza obligatoria. |
| BIGARRENA.- Aurrekontu- | SEGUNDA.- Dotación |

| | |
|---|---|
| hornidura. | presupuestaria. |
| Indarrean dagoen ekitaldiko 321.480.001 aurrekontu-partidan dago aurrekontu-hornidura. | Existe dotación presupuestaria en la partida 321.480.001 del presupuesto del ejercicio. |
| HIRUGARRENA.- Onuradunak | TERCERA.- Beneficiarios |
| Eskola-garraiorako laguntzen onuradun izan daitezke Arratzua-Ubarrundian erroldatutako ikasle guztiak, baldin eta, deialdia argitaratzen den datan, gutxienez urtebete badaramate erroldatuta, eta 27 urtetik behera badituzte. Era berean, derrigorrezko hezkuntza baino goragoko ikasketaren bat egiten ari beharko dira, edozein ikastetxe publiko nahiz pribatutan. | Podrán ser beneficiarios de las ayudas para transporte escolar todos los alumnos empadronados en el Municipio de Arratzua-Ubarrundia que cuenten a fecha de la convocatoria con una antigüedad mínima en el empadronamiento de un año y no sobrepasen los 27 años de edad, que cursen sus estudios en cursos superiores a la Enseñanza Obligatoria en cualquier centro docente oficial tanto público como privado. |
| Diruz lagundutako garraiotzat joko da ondorengo ikasketak egiteko erabiltzen dena.<br>- Batxilergoa.<br>- Erdi mailako LH<br>- Goi mailako heziketaren barruan:<br>• Unibertsitate-ikasketak<br>• Goi mailako arte-ikasketak<br>• Arte plastikoko ikasketa profesionalak eta goi mailako diseinua.<br>• Goi mailako LH<br>• Goi mailako kirol ikasketak | Se entenderán subvencionado el transporte que se realice para realizar estudios de:<br>- Bachillerato.<br>- FP grado medio<br>- Educación superior que engloba:<br>• Enseñanza universitaria<br>• Enseñanzas artísticas superiores<br>• Enseñanzas profesionales de artes plásticas y diseño de grado superior.<br>• FP superior.<br>• Enseñanzas deportivas grado superior. |
| Kanpoan geratzen dira Hizkuntza Eskolako hizkuntza-ikasketak. Hala ere, filologia-ikasketak diruz lagunduta daude. | Quedan excluidos los estudios de idiomas en Escuelas de Idiomas, subvencionándose solo el transporte para estudios de filologías. |
| LAUGARRENA.- Eskaerak eta dokumentazioa.<br>Eskaerak Arratzua-Ubarrundiako Udalaren izenean egin behar dira, www.arratzua-ubarrundia.com webgunean edo udal bulegoetan dagoen ereduaren | CUARTA.- Solicitudes y documentación<br><br>Las solicitudes deberán ir dirigidas al Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia en el modelo que se podrá obtener en la página web www.arratzua-ubarrundia.com o en las oficinas municipales y deberán ir |

| | |
|---|---|
| arabera. Ondorengo dokumentazioarekin batera aurkeztu behar dira:<br><br>- Ikaslearen NANa, edo, adin txikikoa bada, bere guraso edo tutorearena.<br>- Ikasketak egiten ari den ikastetxeko matrikularen fotokopia.<br>- Eskolen ordutegia, Arabatik kanpoko ikasketen kasuan salbu.<br>- Laguntza jasoz gero, diru-sarrera egin behar den kontu zenbakia (IBAN).<br>- Beste erakunde edo organismoren bati, kontzeptu bera dela eta, laguntzaren bat eskatu dion eta laguntza hori jaso duen adierazten duen aitorpena. | acompañadas de la siguiente documentación:<br><br>- D.N.I del alumno o su progenitor o tutor si es menor de edad.<br>- Fotocopia de la matrícula del centro escolar donde curse sus estudios.<br>- Horario de las clases, salvo estudios fuera de Álava.<br>- nº de cuenta (IBAN) en el que ha de realizarse el ingreso en caso de obtenerse la ayuda.<br>- Declaración sobre si se ha solicitado y/o obtenido alguna otra ayuda por este mismo concepto de otro organismo o institución. |
| BOSGARRENA.- Eskaerak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko epea.<br><br>Eskaerak oinarriak ALHAOn argitaratu eta hurrengo 30 eguneko epean aurkeztu beharko dira.<br><br>Aurkeztutako dokumentazioan ez badaude eskatutako datu guztiak, eskatzaileari datu horiek aurkezteko eskatuko zaio, 10 eguneko epean. Epea igaro ondoren eskatzaileak eskatutakoa aurkezten ez badu, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da, ebazpena egin aurretik. | QUINTA.- Plazo de presentación y subsanación de los defectos.<br><br>Las solicitudes deberán presentarse en el plazo de 30 días naturales siguientes al de la inserción de las bases en el BOTHA.<br><br>Si la documentación presentada no reuniera todos los datos exigidos se requerirá al solicitante para su cumplimentación en el plazo de 10 días, con la indicación de que transcurrido el mismo sin presentarlos se le tendrá por desistido de su solicitud previa resolución. |
| SEIGARRENA.- Balorazio-batzordea.<br><br>Eskaerak kultura, gizarte-ongizate, osasun publiko eta kirolen batzorde informatiboan aztertuko dira. | SEXTA.- Comisión de valoración.<br><br>Las solicitudes serán valoradas por la Comisión Informativa de Cultura, Bienestar Social, Salud Pública y Deportes. |
| ZAZPIGARRENA.- Laguntzen zenbatekoa zehazteko irizpideak.<br><br>Laguntzen zenbatekoak inoiz ezin izango du gainditu diruz lagundutako kontzeptuaren kostua. Ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan, zenbatekoa zehazterakoan: | SEPTIMA.- Criterios para determinar la cuantía de las ayudas.<br><br>Para la determinación del importe de las ayudas, que en ningún caso podrán superar el coste del concepto por el que se concede, se atenderá a los siguientes criterios: |

| | |
|---|---|
| - Ikastetxerainoko garraioa, goizeko edo arratsaldeko ordutegian<br>90 €<br>- Ikastetxerainoko garraioa, goizeko edo eta arratsaldeko ordutegian<br>170€<br>- Garraioa Arabatik kanpora 600€ | - Transporte hasta el centro escolar en horario de mañana o tarde<br>90 €<br>- Transporte hasta el centro escolar en horario de mañana y de tarde<br>170 €<br>- Transporte fuera de Álava 600 € |
| ZORTZIGARRENA.- Ebazpena. | OCTAVA.- Resolución. |
| Deialdia Udalak ebatziko du, osoko bilkuran, aurretiaz balorazioa egiten duen batzorde informatiboak egindako proposamen arrazoitua kontuan hartuta, proposamena egiten den dataren ondorengo osoko bilkuran. Ebazpena Iragarki-taulan eta Udalaren webgunean (www.arratzua-ubarrundia.com) argitaratuko da. | La convocatoria será resuelta por el Ayuntamiento Pleno, a propuesta razonada de la Comisión Informativa que realiza la valoración, en la siguiente Sesión Ordinaria que se celebre tras la emisión de la propuesta. La resolución será publicada en el Tablón de Anuncios y en la página web del Ayuntamiento www.arratzua-ubarrundia.com. |
| Deialdia ebazteko eta Ebazpena argitaratzeko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen denetik kontatzen hasita. Epea igarotzen bada eta ez badago berariazko ebazpenik, eskaerak atzera bota direla ulertuko da. | El plazo máximo para resolver la convocatoria y publicar la Resolución será de seis meses a contar desde la publicación de la convocatoria. Transcurrido el dicho plazo sin que recaiga resolución expresa se podrán entender desestimadas las solicitudes. |
| Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du. Ebazpenaren aurka administrazioaren auzietarako errekurtsoa jarri daiteke, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako epaitegian. | Contra la resolución, que pone fin a la vía administrativa cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo de Vitoria-Gasteiz. |
| BEDERATZIGARRENA.- Laguntzen ordainketa. | NOVENA.- Pago de las ayudas. |
| Laguntzak banku-transferetzia bidez ordainduko dira, eskaeran adierazten den kontu zenbakian. | Las ayudas serán abonadas mediante transferencia bancaria al número de cuenta que se halla designado en la solicitud. |
| HAMARGARRENA.- Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin. | DECIMA.- Compatibilidad con otras ayudas. |

C/ Uribea,12 C.P. : 01520 (Durana) C.I.F: P-0100900-J Teléfono : 945-299516 / Fax: 945-299602

| | |
|---|---|
| Deialdi honetan emandako laguntzak bateragarriak dira helburu berbererako jasotako beste laguntzekin. Hala ere, eskatzaileari diru-laguntza honetan ematen zaion zenbatekoa helburu bererako jaso duen beste laguntzaren kopuruaren arabera jaitsiko da. | Las ayudas concedidas en virtud de la presente convocatoria son compatibles con otras ayudas recibidas para el mismo fin, no obstante la cuantía que por esta subvención correspondería al solicitante, será reducida en la misma cantidad que la ayuda que hubiera recibido para el mismo fin. |
| HAMAIKAGARRENA.- Ebazpena aldatzea. | UNDÉCIMA.- Modificación de la Resolución. |
| Laguntza emateko kontuan izandako baldintzetan egindako edozein aldaketak laguntzaren ebazpenean aldaketak ekarri ahal izango ditu. | Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la ayuda, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión. |
| HAMABIGARRENA. Itzulketa. | DUODÉCIMA.- Reintegro. |
| Laguntzak bertan behera utziko dira eta jasotako kopurua itzuli beharko da ikasleak ikasketak uzten baditu, eskaera egin den ikasturtearen barruan.<br>Itzuli beharreko kopuruak eskubide publikoko diru-sarrera izaera izango dute, eta, adierazitako epean itzulketa egiten ez bada, premiamendu-bidea erabili ahal izango da. | Procederá la cancelación de las ayudas y el reintegro de las cantidades percibidas cuando el alumno abandone sus estudios, durante el curso que se solicita.<br>Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de derecho público, resultando de aplicación, si tal reintegro no tiene lugar en los plazos que se señalen, la vía de apremio. |
| HAMAHIRUGARRENA.- Ikuskapena, kontrola eta jarraipena. | DECIMOTERCERA.- Inspección, Control y Seguimiento. |
| Udalak eskubidea du diruz lagundutako jardueraren ikuskapena, kontrola eta jarraipena egiteko, eta baita beharrezko jotzen duen edozein ziurtagiri eskatzeko ere. | El Ayuntamiento se reserva el derecho de inspección, control y seguimiento de la actividad subvencionada, así como de pedir cuantos justificantes se consideren necesarios. |
| HAMALAUGARRENA.- | DECIMOCUARTA.- |
| Oinarri hauetan aurreikusten ez diren kasuetan Arratzua-Ubarrundiako Udalak onartutako Diru-laguntzen Ordenantza Arautzailean ezarritakoa eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotakoa ezarriko da. | En lo no previsto en las presentes Bases se estará a lo dispuesto en la Ordenanza Reguladora de Subvenciones y Ayudas, aprobada por el Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia, y en la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones. |

C/ Uribea,12 C.P. : 01520 (Durana) C.I.F: P-0100900-J Teléfono : 945-299516 / Fax: 945-299602

| | |
|---|---|
| Oinarri hauen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, Udaleko osoko bilkuraren aurrean, hilabeteko epean, edo, zuzenean,administrazioaren auzietarako errekurtsoa, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako epaitegian. | Contra las presentes Bases cabe interponer potestativamente recurso de reposición en el plazo de un mes ante el Ayuntamiento en Pleno o bien directamente recurso Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz. |